Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko maiatzaren 19a, asteartea — 92 — Martes, a 19 de mayo de 2020



## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*0250 LI/2020 Foru Agindua, maiatzaren 15ekoa, «XIX. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundia Sariak» deialdia aldatzekoa.*

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak, 2020ko maiatzaren 15ean, ondorengo agindua eman du:

Martxoaren 2ko 69 LI/2020 Foru Aginduaren bidez (2020ko martxoaren 10eko Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA) «XIX. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundia Sariak» deialdia iragarri zen.

Foru agindu horren bigarren atalak ezartzen zuen eskaerak aurkezteko epea 2020ko apirilaren 8an amaituko zela.

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren 3. xedapen gehigarriak, Covid-19 delakoak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzen duenak, terminoak etetea eta sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko epeak etetea aurreikusten du. Horregatik, lehiaketan izena emateko epea zabalik izan da orain arte.

Dena dela, interes orokorreko arrazoiengatik, izena emateko erraztasunak eman direnez, eta lehiaketaren sarien izaera kontuan hartuta (ekainaren amaieran egingo den kanpainaren sagardoa botilaratu baino lehen entregatzea da komenigarriena), beharrezkoa da ezarritako epeak eta datak aldatzea, foru agindu honen xedapen zatian adierazten den moduan. Parte hartzen duten sagardotegiei botilak erostearen inguruko aurreikuspen berri bat ere ezartzen da.

Hori horrela, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko foru diputatu honek

EBAZTEN DU

*Bakarra.* Aldaketa hauek egiten dira «XIX. Sagardo Lehiaketa. Gipuzkoako Foru Aldundia Sariak» izeneko sarian:

— Eskaerak aurkezteko azken eguna 2020ko maiatzaren 22a izango da.

— Laginak jasotzeko aurreikusten den epea 2020ko ekainaren 5era arte luzatuko da.

— Lehiaketaren eguna 2020ko ekainaren 19a izango da.

— Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak parte hartzen duen sagardotegi interesatu bakoitzari 48 botila Euskal Sagardo erosiko dio, 2,75 €-tan 0,75 litroko botila bakoitza. Horietako 6 lehiaketa dastatzeko erabiliko dira, eta gainerakoak Departamentuak berak parte hartzen duen ekitaldietan erabiliko dira, tokiko produktu hau sustatzeko asmoz.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, administrazioare-

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Orden Foral 0250 LI/2020, de 15 de mayo, por la que se modifica la convocatoria del «XIX Concurso de Sidra. Premios Diputación Foral de Gipuzkoa».*

El Diputado Foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural, con fecha 15 de mayo de 2020, ha dictado la siguiente Orden:

Mediante Orden Foral 69 LI/2020, de 2 de marzo (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa de 10 de marzo de 2020), se convocó el «XIX Concurso de Sidra. Premios Diputación Foral de Gipuzkoa».

El apartado segundo de dicha orden foral establecía que el plazo de presentación de instancias finalizaría el día 8 de abril de 2020.

La disposición adicional 3.ª del Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el Covid-19, contempla la suspensión de términos y la interrupción de plazos para la tramitación de los procedimientos de las entidades del sector público. Por ello, el plazo de inscripción al Concurso ha permanecido abierto hasta la actualidad.

Sin embargo, por razones de interés general, dado que se han proporcionado facilidades para la inscripción y dada la naturaleza de los premios del concurso (cuya entrega debe realizarse antes del embotellado de la sidra de la campaña, que se realiza a finales de junio), resulta necesaria la modificación de los plazos y fechas en los términos que se indican en la parte dispositiva de esta orden foral. Se establece asimismo una previsión adicional en relación con la adquisición de botellas a las sidrerías participantes.

En consecuencia, este diputado foral de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural,

RESUELVE

*Único.* Se establecen las siguientes modificaciones en el «XIX Concurso de Sidra. Premios Diputación Foral de Gipuzkoa»:

— El plazo de presentación de solicitudes finalizará el 22 de mayo de 2020.

— El plazo previsto para la recogida de muestras finalizará el 5 de junio de 2020.

— La fecha de celebración del concurso será el 19 de junio de 2020.

— El Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural comprará a cada una de las sidrerías participantes interesadas 48 botellas de Euskal Sagardoa, a 2,75 € la botella de 0,75 litros. 6 de ellas se utilizarán para la cata del concurso y el resto se emplearán en diferentes actos o eventos en los que participe el propio Departamento en aras a promocionar este producto local.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer direc-

EK\CV GAO-I-2020-02181

kiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete interesdunek, zuzenean, Donostiako administrazioarekiko auzietarako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko foru diputatu honi hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezezpena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

Donostia, 2020ko maiatzaren 15a.—Segundo Díez Molinero idazkari teknikoa. (2181)

tamente contra ella recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses, a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante este Diputado Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

San Sebastián, a 15 de mayo de 2020.—El secretario técnico, Segundo Díez Molinero. (2181)